

# MARTXOAK 8

## EMAKUMEEN

## NAZIOARTEKO

## EGUNA

UNITATE DIDAKTIKOA

# EKONOMIA

# FEMINISTA

BIZITZEA MEREZI DUTEN  
BIZITZAK SORTZEN

# AURKIBIDEA

1. GERTURAPEN TEORIKOA

2. HELBURU PEDAGOGIKOAK ETA UNITATE  
DIDAKTIKOAREN ANTOLAMENDUA

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

1. ETAPA: Haur Hezkuntza

2. ETAPA: Lehen Hezkuntza

3. ETAPA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

4. BIBLIOGRAFIA

# 1. Gerturapen Teorikoa

Bizkaiko Urtxintxa Eskolan, unitateak sortzerakoan, gure lan ibilbidean behatzen eta somatzen ditugun arrakalak aztertu eta hausnartu ondoren, esku-hartzeari ekiten diogu. **Gaur egungo jendarteak identifikatuta ditu emakumearen aurkako indarkeria "bortitzenak"**, hau da, intentsitate handiko indarkeria matxista. Indarkeria mota hau, izebergaren goiko aldean kokaturik dago, erraz identifikatzen da eta beraz, estrategia bat sortu eta aurkako jarrera bat hartu zein erantzun bat emateko aukera argia zabaltzen da.

Behin bortizkeria guzti hoiek aitortuta, **pauso berriak eman behar ditugu indarkeriaren beste itxura batzuen lanketan**. Beste era batera esanda, **izebergaren beheko aldean**, ezkutuan, kokatzen diren indarkeria lantzen hasi behar gara. Indarkeria matxista egiturazkoa den **jendarte egitura patriarkala** mantentzeko indarkeriazko tresna da, eta ikusgarriak diren bortizkeriez gain, izebergaren beheko aldean identifikatzen zailagoak diren indarkeriak antzeman ahal dira: indarkeria soziala, sinbolikoa... **eta baita Indarkeria Ekonomikoa**.

Teoria desberdinek adierazi duten moduan, egitura patriarkalarekin batera, bestelako egitura hertsatzaileak ere beharrezkoak dira bizi ditugun errealitateak eta bertan ematen diren zapalkuntzak era zabalago batean ulertzeko. Eta bide horretan, Jendarte Egitura Patriarkala, Ekonomia Sistema Kapitalistarekin eta Sistema Kolonialarekin lotu izan dira.

**Ekonomia Feministak**, sistema ekonomikoak sortu izan dituen desberdintasunei kritika eginez, **egunerokotik parekidetasuneranzko bidea hasteko gakoak eskeintzea du helburu**.

Ekonomia hitzaren jatorria, aspaldian kokatzen da, Grezia garaian: *oikos* (etxea) eta *nomos* (legea) hitzen elkartetik dator, eta etxekeko gobernantza edo etxebizitzaren kudeaketa moduan uler daiteke. Egungo ulerkerara ekarriz, ekonomiak gizakiak behar dituen zerbitzu eta ondasunen ekoizpen, banaketa, elkartruke eta kontsumoari egiten dio erreferentzia.

Historian zehar, munduko txoko guztietan eman dira ekonomia eredu

desberdinak. Izan ere, gizakion beharrak asetzeko, beharrezkoa izan da ondasunak sortu eta hauek elkarbanatzea. Hasiera batean maila lokalera mugatzen zen aktibitate bat izatetik, egungo **sistema globalera** egin dugu salto, eta honek, **gutxi batzuen ongizatea eta, beraz, gehiengo baten ondoeza ekarri du.**

**Justizia globala lortzera eta bizitza merezi duten bizitzak sortze aldera, paradigma aldaketa bat proposatzen da Ekonomia Feministatik.** Paradigma hau, besteak beste, 3 erpinen inguruan kokatzen da:

- **Bizitzaren jasangarritasuna:** bizitza, bere osotasunean, erdigunean jartzea esan nahi du. Bizitza ez da diru pilaketa lortzeko baliabide bat; bizitza, helburua bera da.

- **Elkardependentzia eta Ekodependentzia:** gizakiok, elkarren beharra dugu, hau da, pertsonak autonomoak gara, baina besteekin etengabeko elkarrekintza eta harreman sare batean kokatzen gara; ondorioz, harreman sare hori elikatu eta zaindu egin behar dugu. Bestetik, naturarekiko ikuspegi aldaketa bat ematea urgentea dela aipatzen da, naturarekiko dugun ikuspegi ustiatzaile batetik, ziklo naturalen berreskurapen eta zaintza ere erdigunera ekarriz; gizakia, naturaren parte bat da, katebegi bat ekosistema orokor batean, eta beraz, ekosistemekin dugun harremana zaindu eta berpentsatu beharrean gaude.

- **Zaintzak:** bizitza merezi duten bizitzak bizi ahal izateko, beharrezkoa dugu bizitza onak bizi ahal izateko baliabideak jartzea. Egungo paradigmaren aurrean, zaintza sareak eta praktikak erdigunera ekartzeko hautua egitera garamatza honek.

Guzti honen aurrean, **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunean, zaintzak, bizitzaren jasangarritasuna eta harreman sareak jarri nahi dira erdigunean, bizitza baliotsu eta parekideak bizi nahi ditugula aldarrikatuz.** Helburua, eskola ziklo guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Ekonomia Feministarekin harremana duten ekimen desberdinak aurrera eramate da, guztion artean, **BIZITZEA MEREZI DUTEN BIZITZAK SORTZEN** hasteko.

Unitate didaktikoaren leloa:

***BIZITZEA MEREZI DUTEN  
BIZITZAK SORTZEN!***

## 2. HELBURU PEDAGOGIKOAK ETA UNITATE DIDAKTIKOAREN ANTOLAMENDUA

### Helburu Orokorra

Bizitza, zentzu sinboliko eta materialen, erdigunean jartzea

### Helburu Zehatzak

- Bizitzaren jasagarritasuna kontzeptu gisa ulertu eta aurrera eramateko ekimenak egitea
- Elkardependentzia eta ekodependentzia harremanak ezagutu eta herri mailan eman daitezkeen eraldaketa esparruak identifikatu eta eraldatzea
- Zaintzen beharrezkotasuna eta gure egunerokoan duten espazioa aitortu, eta zaintza harreman sare sendoak sortzea.

### Unitate Didaktikoaren Antolamendua

**Haur Hezkuntza** — Norkbere zein bestearen bizitza zaintzeko egiten ditugun lanak identifikatzen ikastea eta naturarekiko gertutasuna sustatzea

**Lehen Hezkuntza** — Bizitza zikloan behar ditugun gorputz zein emozioen zaintzak identifikatzea eta naturarekiko harreman parekide eta ez ustiatzaileak sustatzea

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** — Lan Banaketa Sexualaren jatorri eta arrazoiak jabetzea, eta zaintza lanak gure bizitzetan duten zentralitatea aitortu eta balioan jartzea.

# *FLASHMOB*

## *Zaintza Plazara!*

Otsailak 21 edo 22an, Goizean zehar, haur eta gazte guztiak Elorrioko Alde Zaharreaan geratuko gara oso koloretsu jantzita, eta Flashmob bat egingo dugu, Plazan amaituko dena, guztien artean festa giroa sortuz.

Bideo hau, Martxoaren 8an, plazan emitituko da.



# 3. PROGRAMAZIOAK

## 1. ETAPA: Haur Hezkuntza

### Helburua

- Norkbere bizitza zein natura zaintzeko egiten ditugun lanak identifikatzen ikastea.
- Naturarekiko gertutasuna sustatzea

### Metodologia

Hezkidetzatik, metodologia parte hartzaile eta horizontalaren alde egiten dugu, eta honexegatik, gehienetan planteatzen diren dinamikak talde txiki zein handian egitekoak dira.

## Dinamikak

### NATURA JANTZI

HELBURUA: inguruan dugun naturaren inguruan kontzientzia hartzea

PROZEDURA: Errekrean, Eskolan dagoen natura behatu eta aztertzeko eskatuko zaie. Ondorengo orduan, haien behaketa hori, kamixeta batean (edozein kolore) margotuko dute. Kamixeta hau, Martxoaren 8an jazteko balioko du.

BALIABIDEAK: Kamixeta bat + Tela margotzeko margoak

### BIODANTZA

HELBURUA: Gorputzaren eta emozioen zaintza.

PROZEDURA: Gelan sartu ostean, gorputza eta emozioak zaintzeko dugun beharraren inguruan hitzegingo du irakasleak, taldea eserita, galderak eginez.

Ostean, ariketari hasiera emango zaio. Kutxa batean animalia eta landare askoren irudiak egondo dira marraztuak. Bakoitzak kutxatik irudi bat aterako du, eta egokitu zaion irudi horretan agertzen den animalia edo landarea dela imaginatuz, dantzatu egingo du, besteak, jarraitu egingo dutelarik.

BALIABIDEAK: Areto handia + Kartoizko kutxa bat + Inprimatutako Irudiak + Arropa eroso.

## **BIRZIKLATUZ**

HELBURUA: birziklapenaren bitartez naturaren zaintza sustatzea

PROZEDURA: Musika tresna desberdinak egingo ditugu gelan sortzen dugun zein etxetik ekartzen dugun material birziklagarriarekin. Amaitutakoan, perkusio erritmo desberdinak egingo ditugu sortu ditugun musika tresnekin, guztion artean abesti erritmiko bat sortuz.

BALIABIDEAK: Kartoizko kutxak + Botilak + logurt poteak + Arroza + Gometxak + Zeloa + Kola

## 2. ETAPA: Lehen Hezkuntza

### Helburuak

- Bizitza zikloan behar ditugun gorputz zein emozioen zaintzak identifikatzea
- Naturarekiko harreman parekide eta ez ustiatzaileak sustatzea

### METODOLOGIA:

Hezkidetzatik, metodologia parte hartzaile eta horizontalaren alde egiten dugu, eta honexegatik, gehienetan planteatzen diren dinamikak talde txiki zein handian egitekoak dira.

## Dinamikak

### EGUN BAT BIZITZAN

**HELBURUA:** egunerokotasunean bizi ditugun zaintzako lan eta ekintzak identifikatzea

**PROZEDURA:** Talde handian, zaintza zer den zehaztuko dugu (gure gorputza zaintzeko lanak eta emozionalki osasuntsu egoteko ekimenak). Ondoren, esperimendu egun bat zehaztuko da, eta egun horretan, goizetik gauera arte, bakoitzak bere burua zaintzeko egiten dituen zein egiten dizkioten lanak idatziko ditu. Esperimendu osteko egunean, idatzi ditugun ekimen eta lanak taldean elkarbanatuko ditugu.

**BALIABIDEAK:** Gorputzaren Taulatxoa (gorputz bat egongo da marraztua, eta ondoan zerrenda bat egiteko marraztua egongo dira).

### BIODANTZA

**HELBURUA:** Gorputzaren eta emozioen zaintza.

**PROZEDURA:** Gelan sartu ostean, gorputza eta emozioak zaintzeko dugun behararen inguruan hitzegingo du irakasleak, taldea eserita, galderak eginez. Ostean, ariketari hasiera emango zaio. Kutxa batean animalia eta landare askoren irudiak egondo dira marraztuak. Bakoitzak kutxatik irudi bat aterako du, eta egokitu zaion irudi horretan agertzen den animalia edo landarea dela imaginatuz, dantzatu egingo du, besteak, jarraitu egingo dutelarik.

BALIABIDEAK: Areto handia + Kartoizko kutxa bat + Inprimatutako Irudiak + Arropa eroso.

## **NIRE BIDE ISTORIOA**

HELBURUA: Bakoitzak etxetik eskolara duen bidean dagoen natura guztiaz ohartzea.

PROZEDURA: Haur bakoitzari Elorrioko mapa eskeiniko zaio, eta bere etxea kokatu ostean, etxetik eskolaraino dagoen bidea mapan marrazteko eskatuko zaio. Ostean, bide horretan zehar zenbat zuhaitz eta animalia dauden zehazteko eskatuko zaio, eta mapan bertan, horiek koka ditzan. Amaitzeko, etxetik eskolarainoko bidean dauden elementu natural zein kaletarrekin irudi bidezko ipui motz bat marrazteko eskatuko zaie.

BALIABIDEAK: Elorrioko Mapa Txiki bat + Errotulkiak + Papera + Boligrafoa

### 3. ETAPA: Derrigorrezko Bigarrez Hezkuntza

#### Helburuak

- Lan Banaketa Sexualaren jatorri eta arrazoiak jabetu eta duten izaera sexistaren inguruan hausnartuz, egoera iraultzeko jarduerak aurrera eramatea
- Zaintza lanak gure bizitzetan duten zentralitatea aitortu eta balioan jartzea, zaintzaren izaera transbersalaz jabetuz
- Historian zehar Elorrion eman diren bizitzaren zaintzarako ekimen desberdinak identifikatuz.

#### Metodologia

Erabiliko den metodologia, parte hartzailea izateaz gain, lan indibidual zein kolektiboari garrantzia eman nahi zaio. Eztabaida, espresio artistikoa zein film kritika izango dira erabiliko diren metodologiak.

## Dinamikak

### Zer ulertzen dut nik ekonomiaz?

HELBURUA: ekonomiaren ikuspegi makrotik mikrora jauzi eginez, egunerokoan ematen diren jarduera ekonomikoez jabetu, eta jarduera honek zentroan bizitza, eta ez diru pilaketa, izan behar duela barneratzea.

PROZEDURA: Talde txikietan artikulua desberdinak landu eta galdetegi bat erantzun. Munduan dauden eta egon diren ekonomia desberdinen inguruko txostena emango zaie, eta haiek mapa mundi batean kokatuko dute.

BALIABIDEAK: Galdetegia + Munduko Ekonomiak Txostena + Munduko Mapa (eranskina)

### Nork sostengatzen du nor?

HELBURUA: bizitza sostengatzen duten zaintza lanak nor bere inguruan identifikatu eta lan banaketa sexualaz hausnartzea. Etxeak sostengu ekonomikoa izateaz gain, zaintzen ekonomien sostengua izatea beharrezkoa dela barneratzea.

PROZEDURA: Talde handian bizitza sostengatzeko lanak idatziko ditugu arbelean.

Horietako zenbat egiten ditugun hausnartu ostean, bakoitza taula bat eramango du etxera, bertan betetzeko. Taula horretan, etxean zein kalean bititza sostengatzeko lanak nork egiten dituen zehazten saiatuko gara. Hurrengo egunean, klasean horren inguruan hitzegingo dugu, hausnartuz historian zehar nork egin izan dituen lan horiek, eta gure eguneroko egoerarekin alderatuko dugu.

Amaitzeko, identifikatu eta detektatu ditugun zaintza lanak kartulinetan era sortzailean errepresentatuko ditugu, *collage*-a zein margoak/errotulkiak erabiliz.

BALIABIDEAK: Zaintzaren Taula (Eranskina) + Kartulina + Aldizkariak + Margoak/Errotulkiak.

## Elorrioko Zaintza Ohituren Historia

HELBURUA: Historian zehar ingurua zein komunitatea zaintzeko herri mailan eman diren ekimenak identifikatzea eta horiek mapa erraldoi batean (2 x 3 metro) kokatzea.

PROZEDURA:

Talde handian, herria eta komunitatea zaintzeko ekimenak identifikatuko dituzte. Ondoren, DBHko talde bakoitzari, alor batean arreta jartzea eta horren inguruko informazioa bilatzeko eskatuko zaio (liburutegian, udaletxean, emakume zein gizon helduei galdetzen, egunkarietan,...). Amaitzeko, talde bakoitzari esleitu zaion zaintza lan komunitario edota natural horren inguruan aurkitu eta landu den informazioa mapa erraldoi horretan kokatuko da, ikastetxeka.

Era berean, talde bakoitzak LHko 5. eta 6. mailan aurkezpena egingo du, zaintza lan komunitarioen inguruan aurkitu dutena transmituz.

*Proposamenak:*

- Emakumeen zaintza sareak (baserri zein herri giroan)
- Basoen zaintza
- Baratzeetako lan - ohitura kokatuak (ereiteko garaiak, gaitzen kontrako estrategiak, garaian erein beharreko produktuak, uholdeetan zer egin...).
- Elorrioko solstizio, ekinozio jaiak,...

BALIABIDEAK: Elorrioko Emakumeen Historia liburua + Herriko Mapen fotokopiak

+ Elorrioko herriaren mapa marrazteko papera + Elkarrizketak egiteko gidoia

# 4. BIBLIOGRAFIA

## LINKak

<https://webs.ucm.es/info/ec/jec9/pdf/A05%20%20P%e9rez%20Orozco,%20Amaia%20y%20Del%20R%edo,%20Sira.pdf>

<https://www.mrafundazioa.eus/es/articulos/amaia-perez-oro-zco-la-economia-va-de-hacer-posible-la-vida>

<http://www.decrecimiento.info/2015/07/mercantilizacion.html>